

## BALIO PROPOSAMENA:

Guk proposatutako zerbitzuak eraso sexistak ekiditzen ditu, gaur egungo herri askotako arazo larrienetako bat saihestuz. Denok dakigun bezala, emakume gehienak, bakarrik daudenean, beldurra sentitzeko joera dute, batez ere gauetan. Izan ere, gero eta gehiago dira salatzen diren erasoak eta hedatzen doan segurtasun falta eta beldurra.

Adibide asko ezagutzen ditugu non neska bat gauen etxera itzultzen ari denean, bai festetan eta baita egun arrunt batean, gizoneko batek eraso sexistaren saiaketa egin izana. Horietako kasu bat da, besteak beste, 2019ko ekainak 13an gure udalerrian,

Lasarte-Orian, gertatutakoa. Egun horretako goizeko 6ak aldera gertatu zen, biktima Eusko Tren geltokiaren inguruan zegoen gizon batek harritu zuenean. Gizon hura "ukitu intimoak" egiten hasi zitzaizkion bere baimenik gabe. Emakumeak eraso hori salatu zuen, baina trauma eta bizitakoa betirako geratuko zaio.

Horrelako egoerak bizi beharra bidegabekeria hutsa da emakumezkoentzan, horregatik arazo honi aurre egiteko modu hau sortu dugu. Izan ere, gure helburua eta nahia ez da normaltasunez hartzea horrelako garrantzia duen situazio bat, baizik eta prebenitzea desagertarazi harte.

Esan beharra daukagu, proiektua aurrera eramateko beharra ez sentitzea gustatuko litzaigukela, hau da, eraso sexistarik ez egotea gure gizarte inperfektu honetan.

Horretarako, proiektuak arrakasta lortzen badu, hitzaldiak ematea gustatuko litzaiguke bai ikastoletan, enpresetan, etab. horrela, pertsonak pixkanaka kontzientziatuz.



Momentu honetan, gure jakinaren gainean ez dago guk proposatu dugun bezalako bestelako zerbitzurik, beraz, ez dugu kompetentzia zuzenik.

Dakigunez, bada polizia zerbitzu bat, baina ikusten ari garenez eraso sexistak geroz eta maizago gertatzen ari dira gure gizartean, grafikoan ikusi dezakegun bezala. Dagoen arazoa ez da konpontzen. Horregatik gure zerbitzua arazo zehatz horretan zentratuko da eta hori da haietaz bereizten gaitun ezaugarri nagusia. Horrezgain, gertutasuna eskaintzen dugu, hau da, boluntarioen eta zerbitzua erabiltzen duten emakumeen artean tratatu atsegina emanez lasaitasuna transmitituz. Horrela, kaletik preokupaziorik gabe ibiltzeko aukera izango dute.

Jakin badakigu eraso asko salatu eta kasu batzuetan grabatzen direla, baina gure ustez eraso hori jasan duen pertsonari trauma edo bizipen hori bizitza guztirako geratuko zaio, normalean gertatzen den bezala. Horretaz, gure zerbitzua besteak ez bezala gertakizun horiek ekiditzean datza. Horregatik uste dugu hura aurrera eramatea garrantzitsua izango litzakela.

